

# ARTZAIN MUNDUA



EZKERRETIK ESQUINERA, EMILIO, PEDRO ETA DOMINGO AMERIKETAN ARTZAIN. 1956KO URRIA.

Gaur egungo ikuspuntutik, euskal diaspora hau nahiko ulertezina bada ere, garai hartan, bi herrialdeen arteko diferentzia ekonomikoak handiak ziren

## “Iragana Gaurkotuz” shoshoni indioen lurretan

TESTUA: **MIREN ELGARRETA – AINHOA INZA (ARTZAIN MUNDUA)**

Art-Artzain Mundua elkarteak, bere “Iragana Gaurkotuz” programaren baitan, Euskal artzaintza Ameriketara izan denaren azterketa lanaren hasiera Idaho Estatuan izatea ez da kasualitatea, oraindik ere, euskaldunen ondorengo gehien dituen amerikar estatua baita.

Azaleraz Euskal Herria baino 30 aldiz handiagoa izanik, biztanle dentsitatea 50 aldiz txikiagoa duen Idaho estatua, 150 urtetan, gure euskal artzainek maneiatutako artalde handien lur eremua izan da. Estatu handi honi buruz gauza asko entzun ditugun arren, gure artzaintzat zer suposatu duen ezer gutxi dakigu oraindik. Gehiago jakiteko biderik zuzenena, benetako protagonistak izan direnen ahotik, bizitako istorio eta bitxi-keriak entzutea bezalakorik ez da. Protagonista horietako bat, Bizkaiko Bolibar

herrian jaio, baina gaur egunean Bergaran bizi den Pedro Andrinua da.

Bere zaletasuna artzaintza ez izan arren, 74 urte dituen Pedrok, amerikar



MUNIOZGUREN BASERRIA, OIZ MENDIAREN MAGALEAN, 1951. URTEAN

kontinentera joatea erabaki zuen, batez ere, Oiz mendiko Muniozguren izeneko baserrira, Ameriketatik etortzen zen osaba Ramonek kontatzen zituen istorioek sortarazitako grinak bultzatuta.

#### 1951.URTEAN

16 urterekin saiatu zen lehendabiziko aldiz baina posible izan ez eta 1951. urtean, 19 urterekin, Idahoko herri zaharrenetako bat den Shoshone-ra abiatu zen. Herri zahar hau, garai batean, shoshoni indioen lurraldea izan zen. Indio hauek, sugearen indioak izenarekin ere ezagutzen dira.

10 urtetan, Emilio eta Domingo anaiekin batera, artzain eta arotz lanak bateratu ahal izan zituen, jatorriz mutrikuarra zen Mitxel Lecertua-ren arrantxoan.

Amerikar lur hauek ondo hartu zuten Pedro eta berak dioenez, oso oroitzapen goxoak gordetzen ditu; Bolibarrera egiten zituen bidaietako batean gaur egungo bere emaztea dena ezagutu ez balu, Shoshoneko arrantxora itzuliko zen. Baina bizitzak buelta asko eman ostean, Bergaran amaitu zuen.

Ez zuen ingelesa ikasteko beharrik izan, gehien batean, euskal artzainekin erlazionatzen baitzen. Datu aipagarri moduan, 1951. urtean, 500 artzain nafar iritsi ziren Ameriketara, gehienak, beraien egoera ekonomikoa hobetu asmoz.

Gaur egungo ikuspuntutik, euskal diaspora hau nahiko ulertezina bada ere, garai hartan, bi herrialdeen arteko diferentzia ekonomikoak handiak ziren. Datu bat ematekotan, urte haietan, artzain batek lehengo hogeita mila duro "garbi" ateratzen zituen eta orduan, Euskal Herrian, etxe bat erosteko 130.000 pezeta behar ziren. Eguneroko janari dagokionean ere, bi muturrak sumatzen ziren; hau da, Euskal Herrian arrautza bat luxuzko produktua zenean, Ameriketara, artzain batek, dolar baten truke ba zuen ostatua, mantenu osoan.

#### DIRU ITURRIA

3200 ardiekin Arrantxoko zelaietan, Erre-erbako mendietan eta Basamortuan egiten zuten lan. Diru iturririk garrantzitsuena, ingurunekeo baliabide naturalekin hazitako eta bizirik 50 kg. pisatzen zituen arkumearen salmenta zen. Udaberrian, erditze garaietan, basamortua aprobetxatzen zen, bi hi-



labete eskasetan, eta ondoren, garai lehorragoetan, elikagai gehiago izateko, erre-erbako mendietara jotzen zuten. Neguan berriz, arrantxoko zelaietara jaisten zituzten ardiak. Normalean, lau pertsonen artean egiten zituzten artaldearen lanak. Udaberrian, erditze garaia izaten zenez, lan talde hau bi pertsona gehiagok osatzen zuten; eta hauek etxeko lanetaz arduratzen ziren. Bi pertsona hauek "Campero"-ak ziren. Gainera, harrapari eta piztietan tranpak jarzteaz arduratzen zen

"Trampero"-aren laguntza ere izaten zuten. Hainbat ekologistek naturaren aurkako ekintza kontsideratuko duten arren, tranperoaren lana amerikar gobernutik kudeatu eta finantzatzen zen. Mendiko inspektorea ere bizikide zuten. Honek, gaixorik zeuden eta batez ere hanketako minarekin zeuden ardiak mendira ez eramatearen kontrola zuen. Pedrok dioten moduan, urte batzuetan, amerikar gobernuak, Zaldibarko Antonio euskal artzainari eman zion lan hau.

Ameriketako artzaintzan, gizonen nagusitasuna zuten eta emakumeak, euskal kulturaren kontserbazioan nabarmendu ziren. Emakumeei eskertu behar diegu, Euskal Herriko kultura mantentzearen ahalegina, batez ere, euskal artzainengan oso errotuta jarraitzen duten Euskal Festen bitartez. Pasadizo moduan, Pedrok kontatu digu, emakume hauek, diru bilketa baten jasotako diruarekin, Shoshoneko apaizari kotxe bat ezietela.



Eta apaizetaz ari garela, bertan elkar bizi ziren hamazazpi erlijio desberdinek erakusten duten aberastasuna azpimarratzekoa da. Pedroren esanetan, erlijio desberdin hauen elkarbizitza posible zen pertsona bakoitzaren sinesmen eta ikuspegi politiko guztiak naturaltasunez errespetatzen zirelako.

Hala eta guztiz ere, abeltzaintza aberastasuna ikusirik eta lurralde hauetatik tren pasatzen den arren, Shoshone ez da ekonomikoki garatu, inguruan dauden Jerôme, Ketchum eta Sun Vallei lurralde eta hiriburuak bezala. Eta oparotasun eskasaren arrazoia bilatzea ez da erraza izango, baina hausnarketa honi ihes egin ezin dion datu azpimarragarri bat badago; aurreko mendearen amaieran, modu etengabean, ardi kopuruaren murrizketa eman zen, %90 gutxi gorabehera, agian, artzaintetako asko etorkizun oparoago baten susmoa hartzen hasi zirelako, baina kasu honetan, beraien ama Euskal Herrian.